

Sarrera

URRUTIA, Andres
Euskaltzainburua

Gutziz atsegingarria da niretzat egun zuen aurrean hitz egitea, Euskaltzaindiak ohoratzen baitu bere kide gogoangarria, Eusebio Erkiaga idazle lekeitiarra. Hartara, nik hemen ikusten ditut bildurik, bateko, bere familia eta ondorengoak; besteko, Euskaltzaindiaren kideak eta nola ez, Deustuko Unibertsitatearen irakasle eta ikasleak. Horretara ere, elkarrekin loturik agertzen dira Eusebio Erkiagaren lana eta etorkizuna, egungo ikasle gazteek lekukotza ezin hobea izan dezaten, jardunaldi honen bitartez, haren figurari buruz. Eskerrak, beraz, hona hurreratu zareten guztioi eta bereziki, Euskaltzaindiaren Literatura Batzordeari, ekitaldi hau antolatzearen. Ezin baztertu, bestalde, hauxe dela lehen emaitza, Deustuko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak berrikitan itxuraldatu duten lankidetzaz hitzarmenaren aldetik. Eskerrak, beraz, Deustuko Unibertsitateari, areto eder hau gure esku jartzearen.

Zaila da laburbiltzea Eusebio Erkiagaren esan-eginak lerro soil batzuetan. Zailago, nonbait, haren lorratza jardunaldi batean laburtzea, Erkiagaren lanak gai eta arlo asko ukitu zituelako bere bizitzan zehar.

Eusebio Erkiaga lekeitiarra ezagutu genuenentzat eta haren esku-erakutsiak jorratu ditugunentzat, poza areagotu egiten da, egun gure artean da goen Labayru Ikastegiaren eskutik baitugu, modu erraz batean, haren tesguintzan, olerkiz zein hitz lauz, murgiltzea.

Literaturaz eta euskalgintzaz aparte, Eusebio Erkiagak berebiziko zina egin zuen euskararen Akademiarekin eta urte luzetan zuzendaritza kide izan

zen, diruzaintza lanetan. Horra, bada, beste arrazoi bat, gogoratzeko eta omentzeko.

Urteak joan dira Begoñako Elizan azken agurra eman genionetik. Haren gomuta, alabaina, bizi-bizirik dago gure artean, jardunaldi hauek egoki frogatuko dutenez.

Mila esker, eta has gaitezen lanean!